



## ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Olga Urbizu Urreagak, Altzoko Udaleko behin behineko idazkariak

JAKINARAZTEN DU: Altzoko Udalak 2007ko abenduaren 13an egindako Osoko Bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuela:

### **3.- TOKIKO AGENDA 21: BEHIN BETIKO DIAGNOSTIAKOA ETA EKINTZA PLANA, ALBORG+10 IRIZPIDEAK ETA EUSKAL HERRIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOAK ONARTZEAREN ERABAKIA HALA BADA.**

“Tokiko Agenda 21”en helburua herriaren Diagnostikoaren ondorioetatik abiatuz herriaren norabidea hurrengo urteetan zuzenduko duen Ekintza Plana egitea da.

“Tokiko Agenda 21” lantzeko Tolomendik kontratatutako Teknikariek Behin Behineko Diagnostikoa landu zuten 2006bukaeran eta 2007 hasieran.

2007ko azaroaren 9an Herri Batzarra egin zen “Tokiko Agenda 21” lantzen ari diren Teknikariek antolatuta. Aztergai bezala Behin Behineko Diagnostikoa eta Ekintza Plana erabili ziren eta herritarren ekarpenak jaso ziren bi dokumentuetarako.

Ondoren Teknikariak Udal Ordezkariekin bilduta e.karpen hoiak aztertu eta Behin Betiko Diagnostikoa eta Ekintza Plan zirriborroak adostu zituzten.

Bukatzeko Teknikariek Behin Betiko dokumentuak erredaktatu dituzte eta Udal Ordezkariek hauek aztertu ahal izan dituzte 10 egun ingurutan.

Gaurko Osoko Bilkuran Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik sei bertan izanik, aho batez **ERABAKI DA** :

**Lehenengoa: Altzoko Tokiko Agenda 21-eko Behin betiko Diagnostikoa eta Ekintza Plana dokumentuak eta aldi berean Aalborg+10 Konpromisuak eta Euskal Herriko Jasangarritasunerako Konpromisoa onartzea.**

Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko **auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako **epaitegi egokian bi hilabeteko epean**, jakinerazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administratioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere **nahi izanez gero**, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertze errekurtsoa** aurkez diezaiokezu erabakia hartu duen organoari (Altzoko Osoko Bilkurari) **hilabeteko epean**, jakinerazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 116. eta 117. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Alkateak o.e.  
Iñaki Murua Gorostidi

Altzon, 2008ko urriaren 30ean,  
Idazkariak